

Azkibel Liburutegiak bide berriari ekin dio

Gaur eguerdian inauguratuko dute udal liburutegiaren handitze lanen ondoren sortu den kultur espazio berria

Irene Elorza

Aizkibel Udal Liburutegiaren zabaltze lanak bukatuta, gaur eguerdian egingo dute eraikin berriaren inaugurazio ekitaldia.

Gero eta erabiltzaile gehiago dituen liburutegi publikoa gaur egungo beharretara egokitzea izan da handitze proiektuaren erronkarik handiena, Asier Aranbarri alkatearen esanetan.

Juan Beldarrain arkitektoak tren geltoki zaharraren eraikinak zituen ezaugarriak errespetatuz eta horietan oinarrituta egindako hausnarketak eragindako lana aurkeztu du jendaurrean. Bi eraikinen arteko jolasa planteatu dugu. Elkar osatzen eta laguntzen diren eraikinen arteko protagonismoan oreka bilatu nahi izan du arkitektoak.

Liburutegiak ez dira liburu biltokiak jada, informazioa eta kultura kudeatzeko tokiak bilakatu dira eta handitze lana behar horiei erantzuteko egin dugu, esan du Beldarrainek.

'Pako Pako ' bildumako lehen liburua, kalean

Azkoitiko historia umeei kontatzen dion Azkoitixe: Pako Pakokin kontu-kontari liburua aurkeztuko dute gaur, 12:00etan, Aizkibel Udal Liburutegian. Gorka Larrañagak egin ditu liburuaren ilustrazioak eta Juan Bautista Mendizabal herriko Kronista Ofizialak egin ditu dokumentazio eta idazketa lanak. Azkoitiko Udalak argitaratu du Pako Pako bildumako lehen alea den liburua.